

## **KONTROL MOZIOA**

### **UDAL LOKALEN LAGAPENAREN GESTIOA DELA ETA**

Jon Markel Ormazabal EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udaltzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udaltzaren azter dadin. Mozioa 2019ko urriaren 14ean Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

### **JUSTIFIKAZIOA**

2018ko urrian Groseko Hondarpe auzo elkarteak idatzizko eskaera bat egin zuen auzo elkarteko lokalaren egoera adieraziz. Dirudienez, lokalean lau gela edo espazio daude: balio anitzeko gela, bulegoa, bilera gela eta itxita dagoen beste espazio bat. Elkarteko kideen arabera, azken eremu horretako ate horek urteak daramatza itxita eta, gaur egun, elkartea erabiltzen duten 9 eragileek espazio hori beharko lukete haien ekintzak burutzeko.

2018ko urriaren 15ean partaidetzako zerbitzutik honako erantzun hau eman zitzaion idatziz auzo elkarteari: *egia da lokal hori kirol elkarte bati utzita dafoela eta ez duela erabiltzen. Partaidetzako eta kiroletik txosten bat egin da lokala berreskuratzeko eta beste elkarte bateri lagatzeko. Momentu honetan expedientea ogasun departamenduan dago beraiek jarraipena emateko.*

Urte bat pasa den honetan, iraileko batzordeetan delegatuari gaiaren inguruan galdetu genion. Delegatuak ez zuen informazio berririk eman gaiaren inguruan eta expedientea ogasun departamenduan jarraitzen zuela esan zuen. Bestetik, informazio gehigarria bidaliko zigula esan zigun, baina gaur egunerarte ez dugu berririk izan. Urriko batzordean delegatua interpelatu dugunean erantzun digu finantza departamenduan dagoela expedientea eta prozedimendua luzatu egin dela. Hau bi urteetan behin eta berriz entzun dugun argudioa da eta ezin dugu ulertu, udal lokalen demanda handia dagoela kontuan izanda, hainbesteko luzapena izatea horrelako tramite bat.

Donostiako herritarrek hiriko egunerokoan eragile aktiboak eta politika publikoen benetako protagonistak izan daitezen, beharrezkoa da parte-hartze sozialerako politikak landu eta parte-hartzean oinarritutako demokrazian sakontzea. Horrek, gertutasuna eskatzen du Udalaren aldetik, gardentasuna eta edozein praktika klientelista salatzea.

Esandakoa nahiz azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako MOZIO hau aurkezten du:

## **KONTROL MOZIOA**

1.- Udaltzarak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari 2020ko martxoaren aurretik orain arte erabilerarik ez duen lagapena bertan behera utzi eta berria egin dezala, herritarrek Donostiako bitziza sozio-politikoan parte-hartzeko bitartekoak, guneak eta dinamikak sustatzeko bidean.

Donostian, 2019ko urriaren 18an

Jon Markel Ormazabal  
EH Bildu udal taldeko zinegotzia